## I ARABAKO FORU ALDUNDIA

### Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1947

**22/2012 FORU DEKRETUA, martxoaren 27ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea, 2012" aparteko interes publikoko gertaera laguntzeko programari lotutako zerga onurak aplikatzeko prozedura onartzen da.**

Dekretu honen xedea ondokoa da: uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan (irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoa) aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programetarako ezartzen diren eta "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" aparteko interes publikoko gertakarian laguntzeko programari aplikagarriak zaizkion zerga onurak aplikatzeko eta aitortzeko jardunbidea finkatzea. Programa hori Diputatuen Kontseiluak onartu zuen, abenduaren 27ko 80/2011 Foru Dekretuaren bitartez.

Era berean, baldintza jakin batzuetan, Estatuko eta gainerako foru lurraldeetako organo eskudunek aitortutako aparteko interes publikoko gertakarietan laguntzeko programetarako emandako zerga onuren elkarrekikotasuna xedatzen da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

**1. artikulua. Edukia eta aplikazio eremua.**

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak,. bere 30. artikuluan, aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programetarako zerga onura multzo bat xedatzen du.

"Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" aparteko interes publikoko gertakarian laguntzeko programaren onarpenak, Diputatuen Kontseiluak abenduaren 27ko 80/2011 Foru Dekretuaren bitartez egin duen bezala, berekin dakar programa horri aurreko paragrafoan adierazi diren zerga onurak aplikatzea.

Zerga onura hauek aplikatzeko, hala ere, beharrezkoa izango da zerga administrazioak aldez aurretik horiek aitortzea, foru dekretu honetan arautako jardunbidearen arabera.

2. Zerga administrazioak, foru dekretu honetan adierazten diren zerga onuren aplikaziorako beharrezko eskakizunak betetzen diren egiaztatu ahal izango du eta, hala dagokionean, bidezkoa den erregularizazioa egin.

**2. artikulua. Kenkarirako edo hobarirako eskubidea duten gastuen, jardueren edo eragiketen eskakizunak.**

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, bere 30. artikuluko 3 zenbakiko Lehenengo idatz zatiko c) letran aurreikusten dituen zerga pizgarrien aplikazioari begira, iritziko da urte anitzeko proiekzioa duten propaganda eta publizitate gastuek letra hartan adierazten diren eskakizunak betetzen dituztela baldin eta foru dekretu honetako 4. artikuluan adierazten den ziurtagiria lortzen badute eta ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

### Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

#### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

1947

**DECRETO FORAL 22/2012, del Consejo de Diputados de 27 de marzo, que aprueba el procedimiento para la aplicación de los beneficios fiscales asociados al programa de apoyo al acontecimiento de excepcional interés público "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012".**

El presente Decreto tiene por objeto establecer un procedimiento para la aplicación y reconocimiento de los beneficios fiscales establecidos en la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo para los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público que son de aplicación al programa de apoyo al acontecimiento de excepcional interés público "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012", aprobado por el Decreto Foral 80/2011, del Consejo de Diputados, de 27 de diciembre.

Asimismo, se establece, en determinadas condiciones, la reciprocidad para los beneficios fiscales reconocidos para programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público declarados por los órganos competentes del Estado y de los demás Territorios Forales.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

**Artículo 1. Contenido y ámbito de aplicación.**

1. El artículo 30 de la Norma Foral 16/2004 de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo, establece una serie de beneficios fiscales para los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público.

La aprobación del programa de apoyo al acontecimiento de excepcional interés público "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012", realizada por el Decreto Foral 80/2011, del Consejo de Diputados, de 27 de diciembre, conlleva la aplicación a este programa de los beneficios fiscales a que se refiere el párrafo anterior.

La aplicación de estos beneficios fiscales, requerirá, no obstante, el reconocimiento previo de la Administración tributaria conforme al procedimiento regulado en este Decreto Foral.

2. La Administración tributaria podrá comprobar el cumplimiento de los requisitos necesarios para la aplicación de los beneficios fiscales a que se refiere el presente Decreto Foral y practicar, en su caso, la regularización que resulte procedente.

**Artículo 2. Requisitos de los gastos, actividades u operaciones con derecho a deducción o bonificación.**

1. A efectos de la aplicación de los incentivos fiscales previstos en la letra c), del apartado Primero, del número 3, del artículo 30 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo, se considerará que los gastos de propaganda y publicidad de proyección plurianual cumplen los requisitos señalados en dicha letra cuando obtengan la certificación acreditativa a que se refiere el artículo 4 de este Decreto Foral y reúnan las siguientes condiciones:

a) Haien mamia hau izan behar da:

1. Liburuxka, kartel, gida, bideo, ikus-entzunezko euskarri edo bestelako gauzetan datzan sustapen edo informazioko material grafikoa edo ikus-entzunezkoa ekoiztea eta editatzea, baldin eta dohainik banatzen badira eta gertakariaren publizitate euskarri moduan erabiltzen badira.

2. Espainiako edo nazioarteko azoketan berariazko pabiloiak instalatzea edo muntatzea, horietan gertakariaren turismo sustapena egiten bada.

3. Gertakariari buruzko publizitate kanpainak egitea, Espainian nahiz nazioartean.

4. Komunikabideek doako guneak lagatzea "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoak gertakariaren sustapenerako iragarkiak txertatzeko.

b) Zuzenean gertakariaren sustapenerako balio izan behar dute, beren edukiak horren zabalkundea bultzatzen duelako.

Kenkariaren oinarria egindako inbertsioaren zenbateko osoa izango da publizitate euskarriaren edukia funtsean gertakariaren berri zabaltzea izanez gero. Bestela, kenkariaren oinarria egindako inbertsioaren ehuneko 25 izango da.

2. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, bere 30. artikuluko 3 zenbakiko Laugarren idatz zatian aurreikusten duen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako hobariari begira, iritziko da hobaria jaso dezaketen arte, kultura, zientzia edo kirol izaerako jarduerak "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoak ezarritako egitasmo eta programek barne hartzen dituztenak direla, baldin eta zergako tarifen epigrafe edo talde egokian alta hartzeko eta zerga ordaintzeko beharra sortzen badute, zerga onura eskatzen duen pertsona edo erakundeari une horretara arte Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarengatik zegokion tributazioaz gainera eta horretatik aparte.

3. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, bere 30. artikuluko 3 zenbakiko Bosgarren idatz zatian aurreikusten duen toki zerga eta tasetako hobariari begira, iritziko da zerga onura eskatzen den eragiketa bakar-bakarrik delako programaren garapenarekin loturik dagoela baldin eta "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoak ezarritako egitasmo eta programak sustatu eta garatzeko ekintzei bakarrik badagokie.

Aipatutako idatz zatian adierazten diren tributuen artean ez dira sartuko Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga eta egindako eragiketak zergapetzen ez dituztenak.

**3. artikulua. Zerga Administrazioak zerga onurak aitortzeko jardunbidea.**

1. Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan aurreikusitako kenkarien aplikaziorako subjektu pasiboek duten eskubidearen aldez aurreko aitorpena Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako organo eskudunak egingo du, interesdunak eskatu ondoren.

Aitortzeko eskatzen den zerga onurak ondorioak izango dituen zergaldiari dagokion autolikidaziorako arauzko epea hasi baino gutxienez hiru hilabete lehenago aurkeztu beharko da eskabidea. Eskabide horri, "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoak emandako ziurtagiria erantsi beharko zaio, kreditatzen duena eskabidean adierazten diren kenkari eskubidedun gastuak haren jarduera egitasmoak eta programak betetzeko egin direla.

Jardunbide honetan eskumena duen organoaren ebazpen espresua jakinarazi behar den epea hiru hilabete izango da, eskabidea eskudun organo horren erregistroan sartzen den egunetik aurrera.

a) Que consistan en:

1. La producción y edición de material gráfico o audiovisual de promoción o información, consistente en folletos, carteles, guías, vídeos, soportes audiovisuales u otros objetos, siempre que sean de distribución gratuita y sirvan de soporte publicitario del acontecimiento.

2. La instalación o montaje de pabellones específicos, en ferias nacionales e internacionales, en los que se promocione turísticamente el acontecimiento.

3. La realización de campañas de publicidad del acontecimiento, tanto de carácter nacional como internacional.

4. La cesión por los medios de comunicación de espacios gratuitos para la inserción por el consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012" de anuncios dedicados a la promoción del acontecimiento.

b) Que sirvan directamente para la promoción del acontecimiento porque su contenido favorezca la divulgación de su celebración.

La base de la deducción será el importe total de la inversión realizada cuando el contenido del soporte publicitario se refiera de modo esencial a la divulgación de la celebración del acontecimiento. En caso contrario, la base de la deducción será el 25 por ciento de la inversión realizada.

2. A efectos de la bonificación en el Impuesto sobre Actividades Económicas prevista en el apartado Cuarto del número 3 del artículo 30 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo, se entenderá que las actividades de carácter artístico, cultural, científico o deportivo que pueden ser objeto de la bonificación son las comprendidas dentro de los planes y programas establecidos por el Consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012" que determinen la necesidad de causar alta y tributar por el epígrafe o grupo correspondiente de las tarifas del impuesto, de modo adicional y con independencia de la tributación por el Impuesto sobre Actividades Económicas que correspondiera hasta ese momento a la persona o entidad solicitante del beneficio fiscal.

3. A efectos de la bonificación en los impuestos y tasas locales prevista en el apartado Quinto del número 3 del artículo 30 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo, se entenderá que la operación respecto a la que se solicita el beneficio fiscal está relacionada exclusivamente con el desarrollo del respectivo programa cuando se refiera únicamente a actos de promoción y desarrollo de los planes y programas establecidos por el Consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012".

Entre los tributos a que se refiere el mencionado apartado no se entenderán comprendidos el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica y otros que no recaigan sobre las operaciones realizadas.

**Artículo 3. Procedimiento para el reconocimiento de los beneficios fiscales por la Administración Tributaria.**

1. El reconocimiento previo del derecho de los sujetos pasivos a la aplicación de las deducciones previstas en el Impuesto sobre Sociedades, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes se efectuará por el órgano competente de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava, previa solicitud del interesado.

La solicitud habrá de presentarse al menos tres meses antes del inicio del plazo reglamentario de autoliquidación correspondiente al período impositivo en que haya de surtir efectos el beneficio fiscal cuyo reconocimiento se solicita. A dicha solicitud deberá adjuntarse la certificación expedida por el consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012" que acredite que los gastos con derecho a deducción a los que la solicitud se refiere se han realizado en cumplimiento de sus planes y programas de actividades.

El plazo máximo en que debe notificarse la resolución expresa del órgano competente en este procedimiento será de tres meses desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro de

Epe horren kontaketa eten egingo da interesdunari eskatzen zaionean aurkeztutako dokumentazioa osatzeko, edo interesdunari nahiz partzuergoari eskatzen zaienean, artikulu honetako 5 idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako. Eskaera hori jakinarazten denetik eskatutako dokumentazioa aurkezten den arte iraungo du etendurak.

Aurreko paragrafoan adierazi den epea igaro eta interesdunak ez badu jaso bere eskaerari buruzko jakinarazpenik administraziotik, aitorpena emandakotzat joko da.

2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako subjektu pasiboek zerga horretan aurreikusten den hobarirako duten eskubidearen aldez aurreko aitorpena, interesdunak eskatu eta gero, dagokion udalerriko Udalak edo Arabako Foru Aldundiak egingo du, eskumen hori nori dagokion.

Aldez aurreko aitorpen horren eskaerarekin batera, “Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012” partzuergoak emandako ziurtagiria erantsi beharko da, kreditatzen duena delako gertakaria gauzatzen den bitartean egin beharreko arte, kultura, zientzia edo kirol izerako jarduerak haren jarduera egitasmo eta programen barruan kokatzen direla.

3. Beste toki zerga eta tasa batzuetan aurreikusitako hobarien aplikaziorako, subjektu pasiboek eskabidea aurkeztu beharko dute dagozkien zergen kudeaketa bere gain daukan erakundean. Eskabide horrekin batera, foru dekretu honetako 2. artikuluko 3 idatz zatian ezarritako eskakizuna betetzen duelako ziurtagiria aurkeztu beharko da, “Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012” partzuergoak emana.

4. Artikulu honetako 2 eta 3 idatz zatietan aurreikusitako jardunbideetan eskumena duen organoaren ebazpen espresua jakinarazi behar den epea bi hilabetekoa izango da, ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartzen den egunetik aurrera. Epe horren kontaketa eten egingo da interesdunari eskatzen zaionean aurkeztutako dokumentazioa osatzeko, edo interesdunari nahiz partzuergoari eskatzen zaienean, artikulu honetako 5 idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako. Eskaera hori jakinarazten denetik eskatutako dokumentazioa aurkezten den arte iraungo du etendurak.

Aurreko paragrafoan adierazi den epea igaro eta interesdunak ez badu jaso bere eskaerari buruzko jakinarazpenik administraziotik, aldez aurreko aitorpena emandakotzat joko da.

5. Aurreko idatz zatietan xedatutakoaren arabera zerga onuraren aitorpena egiteko eskumena duen organoak “Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012” partzuergoari edo eskatzaileari eskatu ahal izango dio foru dekretu honetako 4. artikuluko 1 idatz zatian adierazten den dokumentazioa aurkez dezala, aitortzeko eskatzen den zerga onuraren aplikaziorako ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko.

**4. artikulua. “Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012” partzuergoaren ziurtagiriak.**

1. Foru dekretu honetan adierazten diren ziurtagiriak lortzeko, interesdunek eskabidea aurkeztu beharko diote “Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012” partzuergoari, Gasteizko Udalaren Erregistro Orokorrean. Eskabide horri erantsi beharko diote egindako gastuaren edo asmotan dagoen jardueraren ezaugarriekin eta helburuarekin loturiko dokumentazioa, baita ere aurrekontua eta hura gauzatzeko modua eta epeak.

Ziurtagiriak jaulkitzeko eskabideak aurkezteko gehieneko epea gertakaria amaitu eta hilabete geroago bukatuko da. Hori guztia, foru dekretu honetako 3. artikuluko 1 idatz zatian finkatutako epearen kalterik gabe.

2. “Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012” partzuergoak, bidezkoa baldin bada, eskatutako ziurtagiriak emango ditu, aurreko idatz zatian ezarritakoaren arabera. Horietan, gutxienez, ondoko hauek jaso beharko dira:

dicho órgano competente. El cómputo de dicho plazo se suspenderá cuando se requiera al interesado que complete la documentación presentada, o se requiera, tanto al interesado como al consorcio, a los efectos de lo establecido en el apartado 5 de este artículo, extendiéndose dicha suspensión, por el tiempo que medie, entre la notificación del requerimiento y la presentación de la documentación requerida.

Transcurrido el plazo a que se refiere el párrafo anterior sin que el interesado haya recibido notificación administrativa acerca de su solicitud, se entenderá otorgado el reconocimiento.

2. El reconocimiento previo del derecho de los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas a la bonificación prevista en dicho impuesto se efectuará, previa solicitud del interesado, por el Ayuntamiento del municipio que corresponda o por la Diputación Foral de Álava, dependiendo de a quien corresponda dicha competencia.

A la solicitud de dicho reconocimiento previo deberá adjuntarse certificación expedida por el consorcio “Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012” que acredite que las actividades de carácter artístico, cultural, científico o deportivo que hayan de tener lugar durante la celebración del respectivo acontecimiento se enmarcan en sus planes y programas de actividades.

3. Para la aplicación de las bonificaciones previstas en otros impuestos y tasas locales, los sujetos pasivos deberán presentar una solicitud ante la entidad que tenga asumida la gestión de los respectivos tributos, a la que unirán la certificación acreditativa del cumplimiento del requisito exigido en el apartado 3 del artículo 2 de este Decreto Foral, expedida por el consorcio “Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012”.

4. El plazo máximo en que debe notificarse la resolución expresa del órgano competente en los procedimientos previstos en los apartados 2 y 3 de este artículo será de dos meses desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro del órgano competente para resolver. El cómputo de dicho plazo se suspenderá cuando se requiera al interesado que complete la documentación presentada, o se requiera, tanto al interesado como al consorcio, a los efectos de lo establecido en el apartado 5 de este artículo, extendiéndose dicha suspensión, por el tiempo que medie entre la notificación del requerimiento y la presentación de la documentación requerida.

Transcurrido el plazo a que se refiere el párrafo anterior sin que el interesado haya recibido notificación administrativa acerca de su solicitud, se entenderá otorgado el reconocimiento previo.

5. El órgano que, según lo establecido en los apartados anteriores, sea competente para el reconocimiento del beneficio fiscal podrá requerir al consorcio “Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012” o al solicitante, la aportación de la documentación a que se refiere el apartado 1 del artículo 4 de este Decreto Foral, con el fin de comprobar la concurrencia de los requisitos exigidos para la aplicación del beneficio fiscal cuyo reconocimiento se solicita.

**Artículo 4. Certificaciones del consorcio “Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012”.**

1. Para la obtención de las certificaciones a que se refiere este Decreto Foral, los interesados deberán presentar una solicitud ante el consorcio “Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012”, en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a la que adjuntarán la documentación relativa a las características y finalidad del gasto realizado o de la actividad que se proyecta, así como el presupuesto, forma y plazos para su realización.

El plazo máximo, para la presentación de las solicitudes de expedición de certificaciones terminará un mes después de la finalización del acontecimiento. Todo ello sin perjuicio del plazo establecido en el apartado 1 del artículo 3 de este Decreto Foral.

2. El consorcio “Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012” emitirá, si procede, las certificaciones solicitadas según lo establecido en el apartado anterior, en las que se hará constar, al menos, lo siguiente:

a) Eskatzailearen izena eta abizenak, edo sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Zerga egoitza.

c) Jardueraren edo gastuaren deskribapena, eta guztirako zenbatekoa.

d) Jarduera partzuergoaren jarduera egitasmo eta programen barruan kokatzen delako edo gastua horiek betetzeko egin delako baieztapena.

e) Propaganda eta publizitate gastuak izatekotan, euskarriaren edukia funtsezkoa den edo ez den ematea, kenkariaren oinarria kalkulatzeari begira.

f) Ziurtagirian adierazten diren gastu edo jardueretarako zerga pizgarriak finkatzen dituen lege aginduaren aipamena.

3. Artikulu honetan adierazten diren ziurtagiriak jakinarazi behar diren epea bi hilabetekoa izango da, dagokion eskabidea "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoaren egoitza den Gasteizko Udalaren Erregistro Orokorrean sartzen den egunetik aurrera. Halarik ere, epe hori eten ahal izango da akatsak zuzendu behar izatekotan, edo dokumentuak eta epaitzeko beharrezko beste elementu batzuk aurkeztekotan.

Adierazi den epean ez bada jasotzen eskabideari buruzko eskaerarik edo jakinarazpenik administraziotik, betetakotzat emango da artikulu honetan adierazten den eskakizuna, eta interesdunak zerga onuraren aitorpena eskatu ahal izango dio zerga administrazioari, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabidearen kopia zigilatua aurkeztuz.

**5. artikulua. "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoak emandako ziurtagirien bidalketa.**

"Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoak, urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian, foru dekretu honetan aurreikusten denaren arabera aurreko hiruhilekoan emandako ziurtagirien kopia bidaliko dio Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzari, ondoren dagozkien kudeaketa organoetara bidaltzeko.

Partzuergoak ez badu bidali eskatutako ziurtagiria aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunak aurkeztutako eskabidearen kopia bidali beharko du.

**6. artikulua. Lehentasunezko mezenasgoaren araubidearen aplikazioa.**

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, bere 30. artikuluko 3 zenbakiko Bigarren idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, lehentasunezko mezenasgoaren onurak dituzten entitate edo erakundeek "Gasteiz Europako Hiriburu Berdea 2012" partzuergoaren ziurtagiri egokia erdietsi beharko dute, foru dekretu honetako 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ziurtagiri horretan, egindako jarduera partzuergo horrek onartutako egitasmo eta programen barruan kokatzen dela ziurtatu beharko da.

2. Aurreko idatz zatian adierazten diren entitate eta erakundeek aurkezleei jaulki beharko dizkiete uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, bere 25. artikuluan aurreikusten dituen ziurtagiriak eta, ekitaldi bakoitzaren amaieraren hurrengo hilabetean, partzuergoari bidali beharko diote ekarpen horien kontura finantzatutako jardueren zerrenda, baita jaulkitako ziurtagirien kopia ere.

3. Partzuergoak jasotako ziurtagirien kopia bidaliko dio, horiek jaso eta hurrengo hilabetearen barruan, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzari.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, bere 30. artikuluan aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programetarako aitortutako zerga onurak Estatuko eta foru lurraldeetako organo eskudunek halakotzat jotzen dituzten

a) Nombre y apellidos, o denominación social y número de identificación fiscal del solicitante.

b) Domicilio fiscal.

c) Descripción de la actividad o gasto, e importe total del mismo.

d) Confirmación de que la actividad se enmarca, o el gasto se ha realizado, en cumplimiento de los planes y programas de actividades del consorcio.

e) En el caso de gastos de propaganda y publicidad, calificación de esencial o no del contenido del soporte a efectos del cálculo de la base de deducción.

f) Mención del precepto legal en el que se establecen los incentivos fiscales para los gastos o actividades a que se refiere la certificación.

3. El plazo máximo en que deben notificarse las certificaciones a que se refiere este artículo será de dos meses desde la fecha en que la correspondiente solicitud haya tenido entrada en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sede del Consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012", sin perjuicio de la suspensión de este plazo en el supuesto de necesaria subsanación de deficiencias o de aportación de documentos y otros elementos de juicio necesarios.

Si en dicho plazo no se hubiera recibido requerimiento o notificación administrativa sobre la solicitud, se entenderá cumplido el requisito a que se refiere este artículo, pudiendo el interesado solicitar a la Administración tributaria el reconocimiento del beneficio fiscal, según lo dispuesto en el artículo anterior, aportando copia sellada de la solicitud.

**Artículo 5. Remisión de las certificaciones expedidas por el consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012".**

El consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012" remitirá a la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava, en los meses de enero, abril, julio y octubre, copia de las certificaciones emitidas en el trimestre anterior conforme a lo previsto en este Decreto Foral, para su ulterior remisión a los correspondientes órganos de gestión.

Si el consorcio no hubiera emitido la certificación solicitada según lo establecido en el artículo anterior, deberá remitir copia de la solicitud presentada por el interesado.

**Artículo 6. Aplicación del régimen de mecenazgo prioritario.**

1. A efectos de lo dispuesto en el párrafo segundo, del apartado Segundo, del apartado 3 del artículo 30 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo, las entidades o instituciones beneficiarias del mecenazgo prioritario deberán obtener la correspondiente certificación del consorcio "Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012" según lo dispuesto en el artículo 4 de este Decreto Foral, en la que se certifique que la actividad realizada se enmarca dentro de los planes y programas aprobados por dicho consorcio.

2. Las entidades e instituciones a las que se refiere el apartado anterior expedirán, en favor de los aportantes, las certificaciones justificativas previstas en el artículo 25 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo y remitirán al consorcio, dentro del mes siguiente a la finalización de cada ejercicio, una relación de las actividades financiadas con cargo a dichas aportaciones, así como copia de las certificaciones expedidas.

3. El consorcio remitirá copia de las certificaciones recibidas, dentro del mes siguiente a su recepción, a la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Los beneficios fiscales reconocidos en el artículo 30 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo para los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público, serán de aplicación a aquellas actividades y programas que así sean declarados

jarduerei eta egitarauei aplikatuko zaizkie, baldin eta haiek onetsitako arautegian elkarrekikotasunarekin aintzatesten badituzte Arabako Foru Aldundiak onetsitako jarduerak eta programak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 27a.– Diputatu Nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

**1937**

**148/2012 ERABAKIA, martxoaren 27ko Diputatuen Kontseiluarena titular partikularren eta pribatuen mendietako baso laguntzetarako deialdia onartzen duena 2012. urterako.**

2008ko abenduaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 112/2008 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Basogintzarako Laguntzen Plana onartu zen, EAEko 2007-2013 Landa Garapen Iraunkorrerako Planaren esparruan. Foru Dekretu hori ondoko hauek aldatu dute: apirilaren 27ko Diputatuen Kontseiluaren 38/2009 Foru Dekretua, otsailaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren 3/2010 Foru Dekretua, eta martxoaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 19/2012 Foru Dekretua. Horietan, eskatzaile eta urte bakoitzeko inbertsioen gehieneko zenbatekoa aldatu da, gero eta ohikoagoak diren jardunen moduluak sartu dira, eta abenduaren 4ko 1852/2009 Errege Dekretuaren arabera gastuak frogatzeko irizpideak erantsi dira.

Titular partikularren eta publikoen mendietako laguntzen 2010erako deialdiaren ebazpenean, krediturik ezagatik ezezkoa eman zitzaien zenbait espedienteri. Hauetarako berriro ere eskaera aurkeztu daiteke hurrengo deialdian eta, abenduaren 23ko 112/2008 Foru Dekretuan –otsailaren 2ko 3/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako aldakuntzaren arabera– ezarritako lehentasunarengatik, beharrezkoa da horiek berreskuratzea.

Deialdi honen babespean eman daitezkeen dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa (aurrekontuko partidaren zenbatekoaren ehuneko 75) euro da. Hala ere, kopuru hori (aurrekontuko partidaren zenbatekoaren ehuneko 25) eurorekin handitu ahal izango da beste deialdi bat egin behar izan gabe.

Zenbateko gehigarri hori eraginkorra izan dadin, beharrezkoa izango da itundutako zergen ekaineko bilketaren bilakaeraren ondorioz aurrekontu kreditua egotea. Horri buruzko txostena egin beharko du, behar den moduan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak.

Kreditua badagoela dirulaguntzen ebazpena eman ondoren aitortuz gero, organo eskudunak ebazpen osagarri bat onartu ahalko du, dirulaguntzak banatzeko eta bakoitzaren zenbatekoa zehazteko lehenengo ebazpenean erabilitako irizpide berberak aplikatuta.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Titular publikoen mendietako laguntzen 2012rako deialdia onartzea.

por los órganos competentes del Estado y de los Territorios Forales, siempre que, en la normativa aprobada por los mismos, se reconozcan de forma recíproca, las actividades y programas aprobados por la Diputación Foral de Álava.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y tendrá efectos desde el 1 de enero de 2012.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2012.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

SERVICIO DE MONTES

**1937**

**ACUERDO 148/2012, del Consejo de Diputados de 27 de marzo, que aprueba para el año 2012 la convocatoria de ayudas forestales en montes de titularidad particular y pública.**

Mediante Decreto Foral 112/2008, del Consejo de Diputados de 23 de diciembre, se aprobó el Plan de Ayudas Forestales para el Territorio Histórico de Álava en el marco del Plan de Desarrollo Rural del País Vasco 2007-2013. Este Decreto Foral ha sido modificado por Decreto Foral 38/2009 del Consejo de Diputados de 27 de abril, Decreto Foral 3/2010 del Consejo de Diputados de 2 de febrero, y por Decreto Foral 19/2012 del Consejo de Diputados de 13 de marzo, donde se modifica el importe máximo de las inversiones por persona solicitante y año, se incluyen módulos de actuaciones cada vez más frecuentes y se incorporan los criterios para la justificación de los gastos de acuerdo al Real Decreto 1852/2009 de 4 de diciembre.

Considerando que en la resolución de la convocatoria para 2010 en montes de titularidad particular y pública, se desestimaron por falta de crédito una serie de expedientes que pueden volver a presentar solicitud en la siguiente convocatoria y que debido a la prioridad establecida en el Decreto Foral 112/2008 de 23 de diciembre en su modificación aprobada por Decreto Foral 3/2010 de 2 de febrero, es necesario recuperar.

La cuantía máxima de las subvenciones a conceder en el marco de la presente convocatoria es de (75 por ciento importe de la partida presupuestaria) euros, si bien podrá incrementarse sin necesidad de una nueva convocatoria, en una cuantía adicional por importe de (25 por ciento importe de la partida presupuestaria) euros.

La efectividad de esta cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito presupuestario como consecuencia de la evolución de la recaudación por Tributos Concertados correspondiente al mes de junio, y que será debidamente informada por el Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos.

Si dicha declaración de disponibilidad se produjera en un momento posterior a la resolución de la concesión de subvención, el órgano competente podrá aprobar una resolución complementaria aplicando idénticos criterios de distribución de las subvenciones y de determinación de su cuantía individual que en la primera.

En su virtud a propuesta de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO

Primero. Aprobar la convocatoria para 2012 de las ayudas en montes de titularidad pública.